

Noingo UPNko lau zinegotzietatik bik dimititu dute udalbatzar istilutsu batean


IU-EBko zinegotziek erregionalistak eta Loitegi Herri Taldea iraindu zituzten

Irene Arrizurieta / Noain

Noingo UPNko lau zinegotzietatik bik dimisioa aurkeztu zuten atzo, alderdi bereko alkateak deitutako udalbatzar berezian. Kargua utzi duten biek «arrazoi pertsonalak» argudiatu dituzte. Bata Jose Maria Marco da, iragan astean etxeko atean lehergailu baten eztanda jasan zuena, eta bestea Julian Arranz Sanchez, alkatearen semea. Batzarraren ondotik, IU-EBko zinegotziak erregionalisten eta Loitegi Herri Taldearen aurka irainka hasi ziren.

LABURRA baina istilutsua izan zen UPNk Noingo Udalean deitu udalbatzar berezia. Udala 11 lagunek osatzen zuten: UPNko 4; Loitegi Herri Taldeko 3; IU-EBko 2; PSNko eta Elortzeko Lagunen taldeko bana. Dimisioa aurkeztu zuten bi zinegotziek —Jose Maria Marco eta Julian Arranz Sanchez— igorritako eskutitz bana irakurri zuten Julian Arranz Mariño alkateak, ez baitziren deialdira azaldu. Biek, alkateak adierazi zuenez, «arrazoi pertsonalak» argudiatu dituzte.

Egunotan giroa gaiztotua dago Noainen, eta joan den asteko leherketaren ondoren, herriko jaiak bertan behera gelditu ziren. Horren harira, alkateak udalbatzarraren ize-



INAKI VERGARA

Noingo udalbatzar berezian izandako bizilagun batzuk, haserre.

nean «lasaitasuna eta guztiontzako errespetua» eskatu zien herritarrei. Oraindik ez dute ordezkarik aurkitu, eta alderdiburuak nahi duena aurkezteko askatasuna eman omen die.

Noingo alkateak esan zuen ulertzen duela bi partidukideen erabakia. «Mingarria da udala kudeatzeko konfiantza duzun lagunak joatea, baina ulertu eta onartu behar da». Alkateak «lasaitasuna eta bizikidetzatza» eskatu du. Era berean, Loitegi Herri Taldeak IU-EBko bi zinegotziengandik jasotako

irainengatik «barkamena» eskatu zien.

«Iuk isilik behar luke»

UPNk, alkatetza hartu zuenean, talde guztiei eskaini zien batzordeetan parte hartzea. «Loitegi agertu zen gurekin lan egiteko prest, eta ez da tentsiorik izan», azaldu du. IU-EBkoek, berriz, alkatetza galduko zutela aurpegiratu zieten atzo behin eta berriro UPNkoei. Horri ere erantzun zion alkateak. «Oso polita da adierazpenak egitea bonba baten inguruan. Gaia ez da

bonba. Auzokideek ere mehatxuak izan dituzte. IU isilik egon behar luke, orain arte ez baitzaie deus axola izan», erantsi zuen. Alkateak azaldukoaren arabera, eurei batzordeetako ateak ireki zaizkie, «eta beti ezetz esan dute, argudiatuz UPNrekin ezin dutela deus adostu beste muturrean daudelako», gaineratu zuen alkateak. Ildo beretik, Jon Oiartzun, Loitegi Herri Taldeko kideak alkatearen hitzak berretsi zituen, lanean «gustura» ari zirela eta udalean «giro ona» zegoela esanez.


Bi gazte atxilotu ditu Guardia Zibilak Noainen

GUARDIA ZIBILAK bi gazte atxilotu zituen atzo Noainen. Espainiako Gobernuak Nafarroan duen Ordezkaritzaren arabera, egunotan gertatutako erasoekin zerikusia omen dute, eta Agoitzko instrukzio epailearen aginduz eraman zituzten gazteak komisariara.

Atxilotuak Jon Erro Espinal eta Miguel Angel Llamas dira. Lehen Noingo Industrialdean lanean ari zela harrrapatu zuen Guardia Zibilak, eta bestea etxean. Halaber, Guardia Zibilak bien etxebizitzak miatu zituen, eta Llamasen sotoa. Bertan, Guardia Zibilak presoan Euskal Herriratzearen alde-

ko pankartak aurkitu eta eraman zituen. Bi atxilotuak Iruñeko komisarian daude, eta seguruenik gaur goizean Madrilera eramango dituzte.

Amnistiaren Aldeko Batzordeek, bestalde, egunotan herrian Guardia Zibilak gazteekin izandako «jarrera erasotzailea» salatu dute. Halaber, bi atxilotetok gaitzesteaz gain, adierazi du Guardia Zibilak egindako lana «jukurria bat» dela, «herrialde honetako aukera politiko bat kriminalizatzeko, euskal gizarteak bere hitza berreskuratzea defendatzen duen aukerarena, hain zuzen».



INAKI VERGARA

Guardia zibilak, Noingo gazteetako bat atxilotzen.

Larreinak ez du onartzen PSOEk EA biolentziarekin parekatzea

Erredakzioa / Gasteiz

RAFAEL LARREINA Eusko Alkartasunako idazkariorde nagusiak adierazi du ez duela onartzen bere alderdia biolentziarekin parekatzea. Bezperan Fernando Buesak egindako deklarazioak arbuiaitu zituen atzo Larreinak. «Sarkasmoa da gu biolentziarekin parekatzea alderdi sozialistak, Guadalajarako izpiritua bultzatu zuen alderdiak», adierazi zuen.

«Hipokrisia politikoa da EAri leporatzea bat datorrela biolentziarekin. Izan ere, etxe barruan begiratu beharko lukete, giza esku-bideak bortxatzeagatik zigortuak baitituzte», adierazi zuen Larreinak.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzak Gobernu Ituna betetzeko exijituko dio EHri, Josu Jon Imaz Jaurlaritzako bozeramaileak atzo ziurtatu zuenez. Gobernu Kontseiluaren ostean, eta kazetariaren galdereri erantzunez, Imazek berretsi egin zuen aurreko asteetan adierazitakoa, hau da, EHk izenpetu zuena bete behar duela.

Gobernu Itunaren arabera, EHk hitzartu zuen «bide demokratikoak eta politikoak» soilik erabilitez. Hori dela eta, Jaurlaritzako kideak uste dute ezkerreko koalizio aber- tzaleak «ahalegin guztiak» egin behar dituela kale borroka geldiarazteko.

Eusko Tren-en geltoki bati eraso diote Bilbon

Agentziak / Bilbo

EUSKO TRENBIDEK Bilboko Deustua auzoan duten geltokiari eraso egin zioten astelehen gauean. Molotov koktel bat jaurti zuten txartelak ateratzeko makina baten kontra, eta erabat kiskalita geratu zen. Suak geltokiko sarre- rako atea eta markesina ere kaltetu zituen.

Eraso horiek direla eta, EAJk jarrera «bigun eta anbigua» duela salatu zuen PPko zinegotzi Antonio Basagoitik. Esan zuenez, EAJk EHrekin dituen akordioen ondorioz, «indartuta sentitzen dira biolentoak, eta ez dute euren metodo faxistak baztertze- ko premiarik ikusten».